


EIGER: amets haundiak gordetzen dituen hitz txikia

PAKO IRIARTE



Bazkal-ondoko kafea lanera joan aurretik ia beharrezkoa da. Ez duk bizio haundia.

- Epa «Gorriye». Ze... lanik ba al dabilkizue?
- Bai, zerbait ba zegok.
- San Fermiñak gainean dituk.
- Etxaurira gatziek.
- Urrengo astean libre antzera al haiz? Hitzegin genian ba, Eigeraren Iparrari bisita egitea edo...
- Ba, ondo.
- Urrengo asteko ostiralean irten eta astebete jai egiteko moduan nauk...

Foto: Antxon Iturriza.

GRINDELWALD-era arratsaldean iristen gara, gure begiak pareta beltz horren bila dabiltza, baina lainoak hartua dute. Denda jarri orduko udako ekaitza. Wetterhorn-etik Eiger-eraino ikusten dugun barrera natural honek, egunez lainoak biltzen ditu, arratsaldez trumoi,

Eigerwand.

tximista eta euri festa egiteko. Han goian berriz, txingorra, elurra... auskalo.

Iluntzean, eguna argitu egin du, udako egun buka-ezin hauetako bat dugu. Ekai-

tzak gaua zekarrela zirudien, baina eguzkiak ba du denbora oraindik eguna alaitzeko.

—Ze arraio! Ekaitz hauetako bat pasatze-ko ba diagu indarra, —diogu elkarri.

Aurreneko trenean Kleine Scheidegg-era igotzen gara, egun zoragarria egiten du. Ze-

laiak, aurreneko pendizak, bakoitzak berean igotzen ditugu. Enkordatu eta Hinterstoisser zeharkaldia erraz pasatzen dugu. Elur asko dago eta harkaitz gainean ur fin bat jeisten da. Lehenengo Neberoa garenean lainoak elkartzen hasiak dira. Pareta nahiko etzan batek jarraitzen dio. Aseguru onik ezin dugu ipini eta ikulondoetatik ur txorroak irteten dizkigu. Blai eginda goaz. Tensio haundiko luzaldi batzuk eta Bigarren Neberoa gaude.

Laino oso itxia dugu. Arratsaldeko orduak iritxi dira. Ekaitza laster izango da, bainan elkarri ez diogu ezer ere esaten. Bidea ezin arkiturik gabilta. Begiak zabal zabalik ditugu laino hartean ikusi nahirik, nebero haundia da hau. Bitartean belarriak erne ditugu harrien txistuak neurtzen.

Ez dugu ezer jan, bainan goserik ere ez dugu. Buru-belarri lanean gaude. Piskanaka eguna hobetzen hasten zaigu, lainoak bakanitzen. Bidea bila dugu eta iluntzen ari den bitartean «Eriotzaren (Erioaren) Bibak» —eraino eltzen gara. Lumazko txamarra jantzi, zerbait jan, sokaz hamaka morura inguratu eta «Aupa ambiente, que la noche es corta!»

Behean argiak ikusten ditugu, han behean nonbaiten izango dira Kontxi eta Ander, konplizeak!

◀ **Hinterstoisser zeharkaldian.**



Bigarren egunean

Bostetan martxan jartzen gara. Hirugarren Neberoa pasatu eta Rampan gara. Izotza dago harkaitz gainean, luzaldi gogorrak dira. Seguruetatik tiraka goaz, desplome batek gelditzen nau. Ezkerreko eskutik tiraka esku-bia luzatu dut eta ozta-ozta friend bat sartu dut, zinzilikatzen naiz begiekin neurtuz bere aguantea. Izotz puska txikiak saltaka ari dira... kanpora doa! Eskerreko eskutik zinzilik nago, Erreflejoak oraindik ondo ditut. Flan bat eginda nago.

Errekuperatu nahizenean, Gorriyek dena gainditua du eskuin aldetik Lachenal-Terray bariante gogorra bilatu du.

Berrito erritmo onean goaz, bainan barruan badugu urduritasun bat, zibilizaziotik urrun egoteak eragiten duen hori, gainera jeistek dituen zailtasunak gogoan ditugu. Gora irten beharra dago.

«Jainkoen zeharkaldian» ikusleak ditugu, elikopteroa gure parean gelditurik dugu eta ranpa labaineta inseguru honetan pasatzen ari garen kaka-larriak ikusten ari dira.

Atzo dena ura zen, gaur aldiz izotza. Benetako egarria asetzeko tantarik ere ez dugu.

«Armiarma» ahal dugun biskorrena pasatzen dugu, ez bait zaigu harriekin boloka jolastea gustatzen. Rabada eta Navarro gogoan ditugu, gure bezelako ametsengatik asken indar eta arnasak utzi bait zituzten hemen.

Kanal haundi baten sartuz, eskalada nahastuan ba goaz goraka. Denbora dexente daramat ezer entzun gabe. Soka makal doa. Gorriyek izotzez beteriko fisura bat gainditu du, klabija baten pasa mosketoia, gero soka, desplome batek moztzen dio bidea. Aurreratzeko klabija bat sartzen du, —ez du asko kantatu—, Bapatean. Orro bat, ixikita dago, metro batzuk beherago, ondo dago, ez du ezer.

Urduri nago, ni noa orain, konzentratu beharra dut, abstraitu eta eskalatu, poliki poliki metroak arrapatuz. Seguru gutxi gainera... luze joaten zait... Gorriyei oraindik luzeago... noizbaiten reunioa montatzen dut. Hau duk gogoia pareta hontatik irteteko!!!

▼ **Bigarren Nebero bidean, plaka labainak.**





Bigarren Neberoa.

Trabesia, rappel pendular bat, aurreneko ur tragoak eta eguzki izpiak aurkitzen ditugu irteerako kanal azpian.

Hiru luzaldi eta gaina hortxe bertan antzematzen da dagoela. Azkenengo elur malda eta arista buka-ezinezkoak egiten zaizkigu. Tripajan eta urduritasunak desagertu dira, gailur usaina dario honi.

Gailurrean, kamarak blai eginda ditugu, ez dugu ia argazkirik atera. Badaezpadaere, bota bi argazki beharrezkoak eta denborarik ez dugu galdu behar gaua gainean dugu eta. Gure ahaleginak bertan behera usten ditugu eta repisa baten gaua pasatzen dugu Eigergletscher-eko argiak begira.

Urrengo goizean, txokolatea kroasanekin, trena, eguzki beroa, Kontxi, Ander... Gorriye eta biok umeak errege egunean bezala... Ankatako behatzak txindurriturik dizkiat... ez duk ezer.

RESUMEN

Eiger: una palabra corta que esconde sueños largos

COMO siempre, hace malo en Grindelwald. Urge esperar. En cuanto sale el sol, el primer tren a la Kleine Scheidegg y empieza la danza con los alicientes habituales: presas mojadas, nieve helada, clavijas que saltan ... Pero, poco a poco, la enorme pared va quedando atrás: la Hinterstoisser, los tres neveros, la Rampa, la Araña. En las Fisuras de Salida Gorriye se pega un vuelo. No pasa nada. Un rato después la ascensión se ha completado y los dos azpeitarras preparan su segundo vivac cerca de la cumbre.

FITXA TEKNIKO

Igoera egunak:

1990 Uztailak 15 eta 16.
Gure ustez hobe da Abustu erdi aldera egitea, baina egunak ez dira nahi direnean izaten.

Materialak:

Izotzeko eskalada da batipat. Harkaitzeko paso gogor batzuk ditu. Partaren egoera eta gure prestaketa gogoan izanik aukeratu genituen ekipoa hau da:

Arropak:

Forro polar trajea.
Euritako txamarra.
Lumazko txaketa (gaua pasatzeko).
Plastikozko botak.
Polainak.
Guanteak, 2 pare (errekanbioak).
Gorroa.
Kaskoa (oso beharrezkoa).

Eskalada ekipoa personala:

Mailu pioleta.
Pioletak.
Kranpoiak.
Baudrierra.

Eskalada ekipoa generala:


Sokak 120 m. Ø 7 mm.
Izotzetako klabijak... 6.
Klabija unibersalak... 2.
Klabija U... .. 2.
Friend-ak 1-2-3.
Fisurero sorta bat.
Zintak.

Janariak:

Bitamina eta mineralak urarentzat.
Gailetak, txokolatea, gaztaia, ... kaloriak bi egunerako. Baina egia esan ez genuen asko jan.

Eskalatzaileak:

PEDRO ARANBARRI «GORRIYE»
eta PAKO IRIARTE. Azpeitiko Lagun Onak M.B.-koak.



«Gorriye» eta Pako gailurrean.